

UGALKORTASUNA

Daniel Devolder


Centre d'Estudis Demogràfics, Universitat Autònoma de Barcelona

ddevolder@ced.uab.es

Azken hiru hamarkadetan eraldaketa handia gertatu da Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren emakumezkoen ugalketa-mailan eta -egutegian. Ugalkortasunaren beherakadak –gainbehera horrek berekin dakarren haur eta gazteen murrizketarekin– eragina izan du zenbait arlotan; besteak beste, hezkuntzan, osasunean eta kolektibo horri zuzendutako ondasunen ekoizpenean. Edonola ere, haurren eta gazteen beherakada proportzionalki apalagoa izan zen ugalkortasunaren beherakada baino, efektu konpentsatzaile baten eraginez: seme-alabak izateko pertsonak ugaritu izana, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako ugalkortasun-tasa handiaren ondorioz. Aldiz, azken hamarkadetan izandako jaiotza-tasen beherakadak hurrengo urteetan ugaltzeko adinean izango den biztanleriaren murrizketa ekarriko du, eta horrek eragin negatiboa izango du haurren kopuruaren etorkizuneko eboluzioan, baita ugalkortasunaren errekupeazioan ere.

Azken hamarkadetan, beherakada oso handia gertatu da herritarren ugalkortasun-mailan, eta emakumeko seme-alaben batez besteko kopurua 1976an 2,84 izatetik 1990eko hamarkadaren erdialdean 0,9 izatera igaro zen; ondoren, nolabaiteko errekupeazioa etorri zen: 2015ean, 1,36 seme-alabara iritsita (1 grafikoa eta 1 taula). Murrizketa hori azaltzeko, lehenik eta behin, hirugarren seme-alabak desagertu izana aipatu behar da (eta, oro har, familia ugariak); izan ere, 3. ordenako eta gehiagoko ugalkortasuna 0,14 izango litzateke emakumeko, hau da, 1975ean baino sei aldiz txikiagoa. Erreproduzio-proiektuaren murrizketa horrekin batera, lehen eta bigarren seme-alaben ugalkortasun-mailak nabarmen jaitsi dira (horiek dira guztizko ugalkortasunean pisu handiena dutenak), eta % 30eko eta % 45eko murrizketa izan dute, hurrenez hurren, 1975ean eta 2015ean. Ugalkortasuna murrizteko erritmo ezberdinaren ondorioz (jaiotako haurren ordenari erreparatuta), lehen seme-alaben pisua handitu egin da; 2015ean % 53koa zen, eta, aldiz, 1970eko hamarkadaren erdi aldera % 40koa.

1. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko ugalkortasunaren adierazle sintetikoaren (UAS) eta amatasunaren batez besteko adinaren eboluzioa. 1975-2015



Ugalkortasunaren beste dimentsio garrantzitsu bat, pertsonen eta familien bizitzaren zikloarekin lotura daukana, amatasunaren adina da. Zalantzarik gabe, azken urteetako eboluziorik nabarmenena ugalkortasun-bizitzari hasiera emateko adinarena da, hau da, lehen amatasunaren adinarena. Izan ere, 6 urte egin du gora, eta 32 bat urtetan kokatzen da gaur egun (baliteke Europako eskualdeetatik altuena izatea). Lehenbiziko amatasuna horren adin aurreratuan izateak esan nahi du emakume askok eta askok bigarren edo hirugarren seme-alaba 35 urterekin baino gehiagorekin izatea, haurdun geratzeko probabilitate biologikoak eta jaiotza bizidunak murrizten hasten direnean, alegia. Gaur egun, Euskadiko emakumeek 34 urte baino gehiagorekin izaten dituzte bigarren umeak, eta hirugarrenak edo hurrengoak izateko batez besteko adina ere berbera da (bi kasuetan adin berbera da, hain justu ere, egutegiaren atzerapenagatik; izan ere, gaur egun, hiru ume edo gehiago dituzten emakumeak lehenengoa eta bigarrena gazteagotan izandakoak dira, aipatutako murrizketa biologikoa dela eta).

1. taula: Guztizko UASren eta amatasunaren batez besteko adinaren eboluzioa, ordenaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 1975-2015

	1975	1980	1985	1990	1995	2000	2005	2010	2015
UAS									
Guztira	2,78	1,86	1,29	0,98	0,90	1,03	1,18	1,31	1,36
1 seme - alaba	39%	44%	48%	52%	57%	57%	57%	55%	53%
2 semeak eta alabak	31%	34%	36%	38%	36%	37%	37%	36%	37%
3 semeak eta alabak	30%	23%	16%	10%	7%	6%	7%	9%	10%
ABB									
Guztira	28,8	28,5	29,0	30,2	31,6	32,7	33,0	32,9	33,3
1 seme - alaba	25,7	25,8	26,9	28,6	30,4	31,5	31,7	31,8	32,2
2 semeak eta alabak	28,7	29,0	29,7	31,5	32,9	34,0	34,6	34,4	34,6
3 semeak eta alabak	33,0	33,1	33,8	34,2	35,0	35,3	35,5	34,6	34,5


Azkeneko bosturtekoetan, ugalkortasun-mailak errekuaratzen joan dira, 1994-95 biurtekoan izandako minimo historikoetatik abiatuta; biurteko hartan, ez zen iritsi emakumeko 0,9 seme-alaba izatera, eta 2015ean 1,34 izatera iritsi zen; hau da, bi hamarkadatan, % 50eko hazkundera gertatu da. Funtsezko galdera da ea joera hori, ugalketaren portaeren aldaketa iraunkorragoaren ondorioz, etorkizunean mantenduko den, edo, aitzitik, fenomeno koiunturala den, gaztetan gerorako utzitako ama izatea gauzatzearen ondorio. Galdera horri erantzuteko moduaren arabera, bi hipotesi planteatuko genituzke etorkizuneko bilakaerari dagokionez: goranzko joerarekin jarraitzea edo gaur egungo mailan konstante mantentzea.

Nabarmentzekoa da EAEn ugalkortasunaren errekuarazioa handiagoa dela gainerako autonomia-erkidegoetan baino (2 grafikoa). Hala, 1980ko hamarkadaren zati handi batean eta 1990koaren lehen erdialdean, EAEk zituen ugalkortasun-maila apalenak; azken bosturtekoetan, berriz, ugalkortasun handiena dutenen artean dago. Posizio erlatiboa hobetze horren arrazoia atzeratutako ugalkortasuna maila handiagotan berreskuratu izana da, aurreko urteetan izandako maila apalagoen ondorioz. Beste arrazoi bat da goranzko joerari eutsi izana oraintsura arte, autonomia-erkidego gehienetan murriztu bazen ere krisialdi ekonomikoaren eraginez.

Amaren adinaren araberrako ugalkortasunaren eboluzioak bi epealdi handi identifikatzea ahalbidetzen du (2. taula). Lehen epealdian, 1975etik 1985era artekoan, ugalkortasunaren beherakada orokorra gertatu zen, eta adin-talde guztietan izan zuen eragina beherakada horrek. Beherakada oso handia izan zen tradizionalki ugalkorrenak izan diren adinetan, eta 25 eta 29 urteen artean ugalkortasunaren tasa erdira murriztu zen; 20 eta 24 urteen arteko tasan, berriz, % 72ko beherakada izan zen hamarkada bakarrean. Bigarren epealdian, laurogeiko hamarkadaren erdialdetik abiatuta, fenomeno nagusia 30 urtetik aurrerako ugalkortasuna handitzea izan da, lehen amatasunaren adinaren atzerapenaren ondorioz. Hala, bi etapa bereiz daitezke ugalkortasunaren maila orokorrari dagokionez. Lehen etapan, 30 urtetik gorako tasen errekuarazioa ez zen nahikoa izan adin gazteenetako tasetan gertaturiko beherakada konpentsatzeko, eta, horren ondorioz, emakumeen batez besteko seme-alaben kopuruak beherantz jarraitu zuen laurogeita hamarrekoko hamarkadaren erdialdera arte. Ugalkortasunaren egutegiak erabateko aldakuntza izan zuen; izan ere, 30 eta 34 urteen arteko taldeak hartu zuen talde ugalkorrenaren lekua, 25 eta 29 urteen artekoari

aurrea hartuta, eta 35 eta 39 urte arteko taldearen tasek 20 eta 24 urte arteko taldearenak gainditu zituzten. Bigarren etapan, 1995. urtetik aurrera, UASa errekuaratu zen, adin gazteetako ugalkortasun-tasek izandako beherakadaren ondorioz eta 30 urtetik aurrerako goranzko joera mantentzearen eraginez. Horrek guztiak azaltzen du 1995. urtetik 2015era ehuneko 90 hazi izana ugalkortasuna, guztira. Eboluzioan gehien nabarmentzen dena da 35 eta 39 urte bitarteko emakumeek, gaur egun, 25 eta 29 urte bitarteko taldearen tasak bikoizten dituztela; 1975ean, azken horien tasak hiru aldiz handiagoak ziren.

2. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko UASaren eboluzioa, beste autonomia-erkidego batzuetakoarekin alderatuta. 1975-2015.



Oharra: grafikoak ez ditu Ceuta eta Melillako datuak jasotzen.

2. taula: Bosturteko ugalkortasun-tasen eboluzioa, EAEn: 1975-2015 (milakotan).

Tasa	1975	1980	1985	1990	1995	2000	2005	2010	2015
15-19	16	16	9	3	2	2	4	5	4
20-24	133	87	44	21	10	9	12	19	16
25-29	201	134	104	68	46	36	36	41	42
30-34	123	85	68	76	85	98	102	100	102
35-39	62	38	25	23	33	54	70	79	84
40-44	20	11	6	4	4	7	12	17	21
45-49	2	1	1	0	0	0	1	1	2
UAS	2,78	1,86	1,29	0,98	0,90	1,03	1,18	1,31	1,36

Eskema orokor hori aldatu egin da azken urteetan, 25 urtetik beherako emakumezkoen ugalkortasunak izandako gorakadaren ondorioz. Alabaina, haustura hori ez da portaera-aldaketa baten ondorioa, hau da, ugalketa-egutegia gatzetzearen ondorio, baizik eta ugalkortasun-patroi gazteagoa daukaten emakumezko atzerritarrek iristearen ondorio. Immigrazio horren rola jaiotza-kopuru osoan ama atzerritarretatik jaiotakoek

daukaten pisuaren eboluzioan egiazta daiteke. Proportzio hori nabarmen handitu da 30 urte baino gutxiago dituzten amengandik jaiotakoen artean: 2007tik 2015era, ama atzerritarrendik izandako jaiotzak gehiengoa dira EAEn bizi diren 25 urtez azpikoetan, eta oraindik ere guztizkoaren % 47 dira 2015ean, nahiz eta atzerriko immigrazioa murriztu den. Beste hitz batzuetan esanda, immigrazio horren eraginik gabe, adin gazteenetan izandako ugalkortasun-tasek beheranzko joeran jarraituko zuketena, 1970eko hamarkadaren erdialdetik aurrera gertatu bezala.


Bada aipatu beharreko bigarren alderdi bat: 1995. eta 2015. urteen artean izandako ugalkortasunaren gorakadaren lehen arrazoa 1. ordenaren eboluzioa da; izan ere, lehen seme-alaben batez bestekoa emakumeko 0,52 izatetik 0,72 izatera igaro da, eta horrek UASaren hazkunde osoaren % 44 osatzen du (3. taula). Joera horrek eta errekupeazioa 30 urtetik gorako adinetan bilduta egoteak ahalbidetzen du arestian planteaturiko galderari erantzuna ematea: UASaren hazkundeak ugalkortasun-maila handiagorako joera-aldaketa iragartzen du edo egutegian ugalkortasunaren adinen aldaketa egokitzearen ondorio da? 1. ordenak 1996. urtean maila oso baxutik abiatuta gora egiteak eta egutegiaren aldaketa handiek zera adieraziko lukete: ugalkortasuna adin gazteetan atzeratutako amatasuna berreskuratzeak kontrolatu duela, eta ez horrenbeste intentsitatearen aldakuntzak –hau da, emakumezkoek azkenean izango dituzten seme-alabak–.

3. taula: Ugalkortasun-tasen eboluzioa, jaiotakoaren ordenaren arabera. EAE. 1995 eta 2015 (milakotan).

	Agindu guztiak		Agindua 1		Agindua 2		Agindua 3 eta gehiago	
	1995	2015	1995	2015	1995	2015	1995	2015
15-19	3	4	2	4	0	0	0	0
20-24	12	16	9	11	2	4	0	1
25-29	53	42	39	28	12	11	1	4
30-34	82	102	43	59	35	34	5	9
35-39	28	84	10	34	14	40	5	10
40-44	3	21	1	8	1	10	1	3
45-49	0	2	0	1	0	1	0	0
UAS	0,90	1,36	0,52	0,72	0,32	0,50	0,06	0,14

Azkenik, lurralde historikoetako ugalkortasunaren ezaugarrien analisiari esker, hurrengo urteetan jarraituko duten edo leunduko diren joerak eta alderdiak identifika daitezke, behin-behinekoak edo behin betikoak (3. grafikoa). Aldaketen artetik nabarmenezkoa da Gipuzkoan izandakoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan zeukan posizio erlatiboa alderantzikatu baitu eta, azken hogeitau urteetan, ugalkortasun handieneko lurraldea izatera igaro da. Aldiz, Arabako eta Bizkaiko eboluzioak antzekoak izan dira mailari eta joerari dagokionez, 2005era arte. Edonola ere, azkenaldian, Araban bizi diren emakumeetan ugalkortasun-tasa handiagoa ageri da; neurri handi batean, ama atzerritarrendik jaiotakoen pisuagatik azalduko litzateke. Egutegia kontuan hartuta, Araban, 1980ko hamarkadatik, amatasunaren batez besteko adina beste bi lurraldeetan baino pixka bat txikiagoa izan da; atzerapen handiena, berriz, Gipuzkoan izan da. Alde horiek ulertzeko, kontuan izan behar da Araban handiagoak direla 25 urte baino lehenagoko ugalkortasun-tasak, lurralde historiko horretan immigrazioak ugalkortasunean inpaktu erlatibo handiagoa izan baitu. Gaur egungo testuinguruan, ugalkortasun-maila kopuru hauen artean dabil: Bizkaian, 1,28 seme-alaba emakumeko, eta Araban, 1,46. Amatasunaren batez besteko adina, berriz, 32,3tik (Araba) 32,7ra (Bizkaia) artekoa da.

3. grafikoa: Ugalkortasun-adierazle sintetikoaren eta amatasunaren batez besteko adinaren eboluzioa. Euskadi eta Lurralde historikoak. 1975-2015



Belaunaldi-analisia


Garrantzitsua da aurreko analisia belaunaldi mailan osatzea. Urtez urteko ugalkortasunaren adierazle sintetikoaren (UAS) balioak gorabehera handiagoak ditu denboran belaunaldien adierazleak baino (azken ondorengotza, AO), zeina egonkorragoa baita. UAS eta AO balioen arteko diferentziak belaunaldien amatasunaren adinean gertaturiko aldaketan dauka oinarria. Bi adierazleen arteko harremana ondorengo ekuazioaren bitartez adieraz daiteke:

$$UAS'_{g+m_g} \approx AO'_g \cdot (1 - \Delta m_g)$$

g belaunaldi baten jaiotzaren urtea da, m_g amatasunerako batez besteko adina eta Δm_g adin horren aldakuntza urtebete lehenago jaiotako belaunaldiarekin alderatuta.

Ekuazio horri esker azal daiteke une bakoitzeko ugalkortasunaren balioen (UAS) eta belaunaldien balioen (OA) arteko diferentzia 1976-2015 epealdian, belaunaldien amatasunerako adin-aldakuntzei dagokienez. Hori horrela, ugalkortasun osoan (4. grafikoa) une bakoitzeko balioak baino handiagoak dira belaunaldien balioak, amatasuna atzeratzen den epealdi osoan, 2005. urtera arte gutxi gorabehera. Baina urte horretatik aurrera amatasunerako batez besteko adinaren maila egonkor bihurtzen da, eta horrek azaltzen du une bakoitzeko ugalkortasun-balioak eta belaunaldienak azken urteetan oso antzekoak izatea: emakume bakoitzeko ia 1,4 seme-alaba, EAEn. Horren ondorio garrantzitsu bat da honetaz ohartzea: 1995etik aurrera UASen balioak igotzearen arrazoia ez da belaunaldien ugalkortasuna handitu izana, zeinaren mailak jaisten jarraitzen baitu 2000. hamarkadako bigarren erdira arte. 1995etik aurrera UASen balioak handitzea egutegiaren eraginez gertatzen da; zehazki, amatasunaren adina atzeratzeko prozesuaren erritmo geldoago baten ondorioz.

4. grafikoa: Une bakoitzeko ugalkortasunaren adierazlearen (UAS) eta belaunaldien adierazlearen (AO) eboluzio konparatua.




Oharra: UAS baliorako, 2012 arte behatu diren balioak. Belaunaldien kasuan, AO balioa belaunaldi guztietarako partzialki kalkulatu da, 1960-1967 epealdian jaio diren belaunaldietarako izan ezik. Belaunaldien AO balioa jaiotza-urteari amatasunaren batez bestekoa gehituta dagokion unean dago adierazita grafikoa. Adibidez, 1960ko belaunaldiak 1,47ko AO balioa dauka Euskal Autonomia Erkidegorako. Balio hori 1988. urtearen erdi aldera dago adierazita grafikoa, une horretan iritsi baita belaunaldi hori amatasunerako batez besteko adinera.

Metodologia bera erabiliz azal daiteke zergatik izan duen 1. ordenako ugalkortasunaren adierazleak hain balio txikia: emakumeko 0,5 seme-alaba inguru (lehen seme-alaba), laurogeita hamarreko hamarkadan (5. grafikoa). Belaunaldiei zegokien balioa 0,8 seme-alaba ingurukoa izan zen epealdi horretan eta bi adierazleen arteko diferentziaren oinarria lehen amatasunaren adinaren atzerakada nabarrian datza.

Adierazle horren balioek beste interpretazio bat ere badaukate; izan ere, bateko osagarria kalkulatzan bada, seme-alabarik gabeko edo behin betiko ugalgabeak diren emakumezkoen proportzioa atera daiteke. Adibidez, 1974. urtean jaio zen –eta proiektzio honen balioen arabera, lehen amatasunerako adinera 2005. urtean iritsi zen–belaunaldiaren 1. ordenako Azken Ondorengotzaren balioa emakumeko 0,7 lehen seme-alabakoa izango litzateke. Beraz, belaunaldi horretako emakumezkoen ehuneko 30ek ez dute seme-alabarik izango 50 urtera iristean, hau da, ugalgabeak izango dira. Aurreikuspen horren emaitzen arabera, lehen ordenaren ugalkortasunaren minimoa eta, beraz, ugalgabeziaren maximoa belaunaldi horri legokioke. Adinaren arabera tasen estrapolazioan oinarrituta, ugalgabezia-mailaren murrizketa aurreikus daiteke. Ehuneko 22koa izango da 1982. urtean jaio den eta lehen amatasuneko batez besteko adinera 2015ean iritsiko den belaunaldirako.

5. grafikoa. Lehen ordenako ugalkortasunaren eboluzio konparatua, EAEn: une bakoitzekoa (UAS_1) eta belaunaldiena (AO_1).




belaunaldi guztietarako partzialki kalkulatu, 1960-64 epealdian jaio diren belaunaldietarako izan ezik. Belaunaldien DF_1 balioa jaiotza-urteari lehen amatasunaren batez bestekoa gehituta dagokion unean dago adierazita grafikoan. Adibidez, 1960ko belaunaldiak 1,47ko AO_1 balioa dauka Euskal Autonomia Erkidegorako. Balio hori 1987. urtearen hasiera aldera dago adierazita, une horretan iritsi baita talde hori lehen amatasunerako batez besteko adinera.

Lehen ordenako ugalkortasuna handitu izana, eta, ondorioz, ugalgabezia murriztu izana, hein handi batean, 25 urtez azpiko emakumeen ugalkortasunak immigrazioaren ondorioz izan duen gorakadaren ondorio da. Immigrazioaren etorrera murriztuko balitz, ugalgabeziaren murrizketa aurreikusitakoa baino txikiagoa izango litzateke. Kontuan hartu beharreko beste faktore baldintzatzaile bat 30 urtetik aurrerako murrizketa biologikoa da; izan ere, lehen seme-alaba izan nahi duten emakumezkoek haur hori izateko probabilitate txikiagoa dute, honako hauen ondorioz: adinarekin antzutasuna areagotzen da, ugalkortasuna murrizten da, eta haurdunaldia eteteko dagoen arriskua handiagoa da, faktore naturalen eraginez. 1. ordenaren proiektzioan ikus daiteke 30 urtetik gorako ugalkortasun-tasak asko handitu direla, baina datu hori okerra izan daiteke baldintzatzaile horietan oinarrituta. Aldiz, ugalketarako laguntza-teknikak martxan jartzeak eta orokortzeak baldintzatzaile biologikoen rola arindu dezake. Hori garrantzitsua da, lehen ordenako ugalkortasun-mailak, hein handi batean, ugalkortasun osoaren maila baldintzatzen duelako.

Azkenik, seme-alaba kopuru jakin bat izanda seme-alaba bat gehiago nahi duten emakumezkoen proportzioa neurtzen duen adierazlea erabili da, hau da, "handitzeko probabilitateak" neurtzen dituenak. Bigarren ordenako jaiotzetarako, probabilitate bat kalkulatu da, eta horrek adierazten du aurretik seme-alaba bat izanik bigarren seme-alaba izan zuten emakumeen proportzioa ($p_{1 \rightarrow 2}$). Maila handiagoetarako, bi seme-alaba edo gehiago dituzten emakumezkoek seme-alaba bat gehiago izateko daukaten probabilitatea ($p_{2 \rightarrow 3+}$) aztertu da.

EAEn, seme-alaba bat izanda bigarren seme-alaba izan zuten emakumeen proportzioa jaitsi egin da: 1980. hamarkadan 0,7 izatetik, 1995-2006 aldian 0,6 izatera pasa da. Tarte horretako portaera egonkorra dela ikusi da, eta 2025erako proiektzioaren arabera, lehen seme-alaba izanda bigarren seme-alaba izango duten emakumeen proportzioak 0,6 eta 0,65 bitartekoa izateari eutsiko dio (6. grafikoa).


6. grafikoa. Seme-alaba bat duten emakumeen handitzeko probabilitatea ($p_{1 \rightarrow 2}$): une bakoitzaren eta belaunaldien balioen eboluzioa. EAE.



Oharra: $p_{1 \rightarrow 2}$ da seme-alaba bat izanda bigarren seme-alaba izan zuten emakumeen proportzioa. Une bakoitzeko edo aldiko balioetarako, datuak 2012ra arte behatu dira. Belaunaldien kasuan, probabilitatearen balioa belaunaldi guztietarako partzialki kalkulatu da, 1960-1967 epealdian jaio diren belaunaldietarako izan ezik. Belaunaldien probabilitatearen balioa jaiotza-urteari amatasunaren batez bestekoa gehituta dagokion unean dago adierazita.

3. ordenan eta handiagoetan, bi seme-alaba edo gehiago dituzten emakumeentzat seme-alaba bat gehiago izateko probabilitateak beherakada orokorra eta handia izan du. Hirurogeita hamarreko hamarkadan, berrogeiko hamarkadaren amaieran eta berrogeita hamarreko hamarkadaren hasieran jaiotako belaunaldiei dagokien epealdian, ehuneko 40 eta 50 artekoa zen 2 seme-alaba edo gehiago izanik beste seme-alabaren bat izan zuten emakumezkoen proportzioa. Proportzio hori ehuneko 15era jaitsi da azken aldian, eta pixka bat igo da azken urteetan (7. grafikoa)

7. grafikoa. Bi seme-alaba eta gehiago dituzten emakumeen handitzeko probabilitatea ($p_{2+ \rightarrow 3+}$): une bakoitzaren eta belaunaldien balioen eboluzioa. EAE.



Oharra: $p_{2+ \rightarrow 3+}$ da seme-alaba bat eta gehiago izanda beste seme-alaba bat izan zuten emakumeen proportzioa. Une bakoitzaren eta belaunaldien balioa adierazteko prozedura maila txikiagoetarako erabilitako bera da.